

B1EA 2020

COVID-19

Antolamendu arau berriak Nouvelles règles d'organisation

1) Sessions

Un examen pour l'obtention du certificat validant le niveau B1 de la langue basque (B1EA) sera organisé en Pays Basque de France en 2020.

En raison de la crise sanitaire du Covid 19 une session d'examen de niveau B1 ouverte au public adulte en cours d'apprentissage de la langue basque se déroulera à l'automne 2020.

2) Public concerné : conditions

Le niveau B1 correspond aux spécifications du Niveau seuil pour un visiteur en pays étranger. Deux traits le caractérisent particulièrement. Le premier est la capacité à poursuivre une interaction et à obtenir ce que l'on veut dans des situations différentes. Le deuxième trait est la capacité de faire face habilement aux problèmes de la vie quotidienne. L'examen s'adresse aux personnes souhaitant obtenir le certificat de niveau B1 de langue basque, qu'elles l'aient reçue comme langue maternelle, ou qu'elles soient entrain de l'acquérir par initiative personnelle ou dans un centre de formation pour adultes.

L'examen est organisé sur la base d'un appel à candidatures ouvert à toute personne¹ âgée d'au moins 18 ans au 31 décembre 2020, soit née avant le 1er janvier 2003.

1) Deialdiak

Euskara gaitasuna egiaztatzen duen B1 mailako agiria eskuratzeko (B1EA) azterketak antolatuko dira 2020an Iparraldean.

Covid 19 osasun krisia dela-eta, B1 maila egiaztatzeko azterketak, euskara ikasten ari diren helduei zuzenduak, deialdi ireki baten bidez iraganen dira 2020ko udazkenean.

2) Nori irekiak: baldintzak

B1 maila, bisitariak atzerriko herrialde batera joateko behar duen Atalase-mailari dagokio, eta bi ezaugarri nagusi ditu. Lehen ezaugarria zenbait egoeratan harremanak izateko eta nahi duena lortzeko gaitasuna. Bigarren ezaugarria eguneroko bizitzako arazoei aurre egiterakoan, malgutasunez jokatzeko gaitasuna da.

Azterketa, B1 mailako euskara gaitasun agiria eskuratu nahi duten pertsonen² irekia zaie, ama-hizkuntza gisa baitute edo beren baitatik edo helduentzako euskaltegi batean landuz ikasten ari baitira.

Azterketa, deialdi irekiz antolatua da 2020ko abenduaren 31n berantenez 18 urte betetzen dutenentzat, hots 2003ko urtarrilaren 1.a aitzin sortuentzat.

¹ Pour des raisons d'organisation et de moyens, on n'acceptera qu'un nombre limité de candidats, en tenant compte d'un des critères géographiques suivants : seuls seront acceptés les candidats nés en France, y vivant, y travaillant ou y étudiant.

² Antolaketa eta baliabide arazoak direla medio, azterketari kopuru mugatua onartuko da azterketara, baldintza geografikoa kontuan hartuz: frantziar Estatuan, sortu, bizi, lan egin edo ikasten ari diren azterketariak baizik ez dira onartuko.

Pour se présenter à l'examen, il faudra s'acquitter d'une somme de 24 €.

Le candidat devra présenter une pièce d'identité le jour de l'examen.

Azterketan parte hartu ahal izateko 24 €-ko saria ordaindu beharko da.

Azterketa egunean nortasun agiri bat aurkeztu beharko du azterketariak.

3) Dates et lieux d'examen

Les délais et le lieu du dispositif de certification de l'année en cours seront publiés au mois d'août sur le site Internet de l'OPLB, ainsi que dans les médias.

4) Nombre de présentations

Chaque candidat pourra se présenter à l'examen autant de fois qu'il le voudra.

3 Azterketen leku-egunak

2020ko agorrilean, EEPko webgunean eta hedabideen bitartez argitaratuko dira urteko egiaztapen dispositiboaren epe eta kokaguneak.

4) Errepikapenak

Azterketari bakoitzak nahi bezainbat aldiz aurkezten ahalko du bere burua azterketara.

5) Consultation de copie

Si un candidat qui n'a pas été reçu à l'examen souhaite consulter sa copie, il peut en faire la demande, à la date fixée à cet effet par le Comité Scientifique. En raison de la crise sanitaire du Covid 19, il se peut que cette date ne soit pas fixée dans l'année 2020.

5) Kopien kontsulta

Azterketa gainditu ez duen azterketari batek bere azterketa ikusi nahi izanez gero, Batzorde Zientifikoak finkatuko duen data batean egin dezake. Osasun krisiarengatik, gerta liteke data hori ez 2020an berean ez izatea.

6) Invalidation

Tout candidat pris en flagrant délit de fraude ou de tentative de fraude, ou utilisant des documents prohibés, risque l'exclusion de la salle d'examen et la nullité de l'examen.

La décision d'exclusion et de nullité revient aux membres du jury présents le jour de l'examen.

6) Baliogabetzea

Azterketa denboran tranpa egiten duen edo saiitzen den azterketaria, edo debekatuak diren lagungarriez baliatzen dena, azterketatik kanporatua izanen da eta haren azterketa baliogabetua.

Kanporatze eta baliogabetze erabakia, azterketa eguneko aztertzaile-taldearen esku izanen da.

7) Détail du déroulement

Déroulement de l'examen écrit : l'examen se déroulera conformément au document **Règlement 2020 de l'examen B1EA**. Les conditions particulières de sécurité à respecter impérativement à cause de la crise sanitaire de 2020 (port obligatoire du masque, distanciation entre les personnes, lavage des mains systématique...) y sont précisées.

7) Azterketaren iragan molde zehatza

Idatzizko azterketaren iragan moldea: **B1EA Azterketa eredua 2020** dokumentuaren arabera egingen da. 2020ko osasun krisiarengatik errespetatu beharko diren segurtasun baldintza bereziak (masken derrigorrezko erabilera, pertsonen arteko distantziak errespetatzea, eskuak usu ikuztea...) bertan zehaztuak dira.

Déroulement de l'examen oral : l'examen se déroulera conformément au document **Règlement 2020 de l'examen B1EA**. Les conditions particulières de sécurité à respecter impérativement à cause de la crise sanitaire de 2020 (port obligatoire du masque, distanciation entre les personnes, lavage des mains systématique...) y sont précisées.

En ce qui concerne la composition et le rôle du jury :

- Tout candidat se présentant à l'épreuve orale devra prouver qu'il a acquis le niveau B1 en langue basque dans les compétences : expression orale en continu et interaction orale devant un jury composé de deux examinateurs.
- Un membre du jury (à tour de rôle, s'ils le souhaitent) vérifiera la pièce d'identité du candidat et assurera le déroulement technique de l'épreuve (inscription des noms et prénoms, gestion du temps...), pendant que le second interrogera le candidat.

Ahozko azterketaren iragan moldea: **B1EA Azterketa eredua 2020** dokumentuaren arabera egingen da. 2020ko osasun krisiarengatik errespetatu beharko diren segurtasun baldintza bereziak (masken derrigorrezko erabilera, pertsonen arteko distantziak errespetatzea, eskuak usu ikuztea...) bertan zehaztuak dira.

Epaimahaiaren osaera eta antolaketari dagokionez:

- Ahozko azterketara aurkezten den orok, bi aztertzailez osatu aztertzaile talde baten aitzinean frogatu beharko du B1 mailari dagokion euskara gaitasuna duela: ahozko adierazpen jarraikia eta elkarreragina gaitasunak eskuratu dituela.
- Azterketa taldeko batek (edo aldizka, nahi izanez gero) azterketara aurkezturikoaren nortasun agiria egiaztatu eta azterketaren alde teknikoa segurtatuko du (izen-deiturak hartzea, minutuen neurketa...), besteak azterketaria galdekatuko duen bitartean.